



3. alea

geurien

euskera hitzarmena

MERKATARI ETA OSTALARIANTZAKO IKASTAROAK MARTXAN

Herriko merkataria, ostalari eta zerbitzu-enpresetako langile dezentek euskara-maila hobetzeko interesa agertu duzuela kontuan izanda, premia hori asebetetzeko lanean jarri gara 2009-2010 ikasturtera begira. Ondokoak dira eskainiko diren ikastaroak:

- **Euskalduntzea:** urrian hasi eta ekainera arte; euskara jakin ez, edo gutxi jakinda, gutxieneko maila lortzera bideratutako ikastaroa. Asteazkera zehar hiru egunetan sei orduko ikastaroa.

- **Idatzizko trebakuntza espezifikoa:** bereziki merkataria eta ostalariak gehien erabiltzen dituzuen dokumentuak euskaraz lantzeko ikastaroa izango da: fakturak nola egin, kartelak nola idatzi eta abar. Urritik abendura bitarte iraungo du asteazkera zehar hiru egunetan emango den ikastaroa.

- **Berbalagun:** euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak elkartu eta euskara



Idatziak lantzeko ikastaroan ari diren ikasleak

praktikatzen dituzten Berbalagunak. Izena eman duzuenon artean aukeratutako eguna eta orduaren arabera egingo dira taldeak.

Con el propósito de responder al interés que habéis demostrado por aprender, mejorar o practicar el euskera, durante el curso 2009-2010, dependiendo de las necesidades de cada cual, podréis asistir a cursos de:


- **Euskaldunización:** cursillo dirigido a personas que no conocen o tienen un bajo conocimiento de euskera; de octubre a junio tres días a la semana de dos a cuatro.
- **Formación** específica para la realización de escritos: cursillo de 60 horas destinado al aprendizaje de redacción de documentos que utilizáis habitualmente en vuestros establecimientos: facturas, carteles, etc.
- **Berbalagun:** grupos de cuatro o cinco personas para practicar el euskera, al menos una hora a la semana, el día y hora fijados por el grupo.

KOMERTZIO, TABERNA ETA ZERBITZU-ENPRESEN EGOERA

Hitzarmeneko partaideok egiten duzuen jardunari jarraipena egiteko asmotan, ekaina-uztaila bitartean zuongana jo dugu. Guztira, 100 establezimendutik gora bisitatu ditugu: zehatz-mehatz, 49 komertzio, 34 zerbitzu-enpresa eta 25 taberna-jatetxe.

Konpromisoen betetze-mailaren arabera, establezimendu bakoitzaren egoera aztertu dugu eta 3 mailatan sailkatu:

- 1. maila: komertzioen kanpo-paisaia euskaraz, ele bietan edo neutroa duzuenok.
- 2. maila: lehenengo mailako irizpidea bete eta komertzioaren barne-paisaia euskaraz, ele bietan edo neutroa duzuenok.
- 3. maila: 1. eta 2. mailako irizpideak bete eta komertzioa zabalik dagoen orduetan euskarazko zerbitzua ematen duzuenok.



Euskararen presentzia gehitzeko asmotan, konpromiso berriak hartzerarekin batera ere animatu zarete zuetako asko eta asko, esate baterako:

- 1. mailakoak: kanpoko kartelak euskaraz edo ele bietan jartzera
- 2. mailakoak: fakturak, poltsak eta bisita txartelak euskaraz edo ele bietan jartzera.
- 3. mailakoak: langileen artean euskaraz hitz egitera.

Elorriko merkataritzan euskararen erabilera gehitzea guztion zeregina da, animo!

Entre junio y julio de este año se ha hecho el seguimiento a la situación en la que se encuentran los establecimientos firmantes del acuerdo Geurien. En total hemos visitado más de 100 establecimientos: 49 comercios, 34 empresas de servicio y 25 bares-restaurantes. Todos ellos han sido clasificados en 3 niveles, según el nivel de cumplimiento de los compromisos adquiridos.

Muchos de ellos se han comprometido a mejorar la presencia del euskera adoptando nuevos compromisos.

ELKARTEEN TXOKOA

Zaldi Baltza xake taldea

Noiz eta nola sortu zen Zaldi Baltza Xake taldea?

Egia esan ez dakigu noiz eta nola sortu zen xake taldea. Uste dugu 80ko hamarkadaren hasieran sortu zela Club de Ajedrez Zaldi Beltza izenarekin baina egungo bazkideek ez zuten xake taldearen sorreran parte hartu.

Hamar urteko etenaldiaren ondoren, 2000. urte bukaeran jokalaria ohi batzuk berriro hasi ginen jokatzeko. 2001eko abenduan estatutu berriak onartu eta elkarteari izena aldatzea erabaki genuen; orduetik aurrera, izen berria ZALDI BALTZA Elorrioko xake taldea kirol elkarte da.

Zeintzuk izaten dira elkarteak Elorrion antolatzen dituen ekitaldiak?

Bizkaiko Federakuntzak eta Euskadiko Federakuntzak antolatzen dituzten txapelketak jokatzeko ditugu, batez ere, Bizkaiko Liga. Baita Bizkaiko xake azkar txapelketa eta Euskadiko Xake azkar txapelketa ere.

San Balentin Berrio-Otxoa jaietan taldekako xake azkar lehiaketa antolatzen dugu urtero 2002 urtean hasita. Euskal Herri osotik eta kanpotik (Errioxa, Cantabria, Asturias, Madril) etorritako 18 taldek jokatzeko ditugu.

XAKE ESKOLA: 8 urtetik aurrerako neskato-mutikoei xake-klaseak ematen dizkiegu doan. Xake Eskolako neskato eta mutikoei Durangaldeko eta Bizkaiko eskolarteko jokoei parte hartzen dugu. Xake Eskolan gure harrobia lantzen dugu.

Nolakoa da euskararen erabilera elkarteko kideen artean?

Gehienok euskaldunak gara eta euskaraz egiten dugu gure artean, baina gazteleraz ere hitz egiten dugu.

Zein da txapelketatan erabiltzen duzun hizkuntza? Zergatik?

Xake partidetan isilik egon behar da, ez dago aurkariarekin hitz egiterik.

Antolatzen ditugun txapelketetan aurkezpena eta sari banaketak euskaraz egiten ditugu, baina Euskal Herrikan kanpo etortzen diren taldeak direla-eta (Asturias, Madril eta Errioxa), gazteleraz ere egiten dugu ekitaldiaren laburpena.



No sabemos exactamente cuándo y cómo se creó el grupo, pero creemos que fue al inicio de la década de los 80 bajo el nombre de Club de Ajedrez Zaldi Beltza.

En diciembre de 2001 aprobamos los nuevos estatutos y decidimos cambiar el nombre a la asociación. Desde entonces el nombre de la misma es ZALDI BALTZA Elorrioko xake taldea.

En la Escuela de Ajedrez ofrecemos clases gratuitas a chicas y chicos mayores de 8 años.

La mayoría de socios y socias somos euskaldunes y hablamos en euskera, pero también en castellano.

En las partidas de ajedrez tenemos que estar en silencio. Tanto la presentación de los campeonatos como el reparto de premios los realizamos en euskera, pero como suele haber participantes que vienen de fuera de Euskal Herria (Asturias, Madrid y Rioja) también realizamos los resúmenes de los actos en castellano.



Lagunarte kofradixa

Zein da Lagunarte elkartearen helburua?

Lagunarte elkartearen Kofradixa Andra Mari ermitari erabat lotuta dago eta orain 41 urte sortu zen, XV. mendeko liburuetan kofradixa honen berri agertzen bada ere. Auzokoentzat elkartzeko toki baten beharra ikusi zen, batzarrak eta aisia-orduak pasatzeko. Orain, bazkideentzat leku aproposa daukagu ekintzak antolatzeko, gehienak jatekoarekin lotuta. Guztira 74 kide gara.

Nolako izaten da euskararen erabilera Elorrioko elkarte gastronomikoetan?

Gure Kofradixan erabilera oso altua da, kidegoaren %95ek euskaraz badaki. Iturrizorok (Elorrioko soziedade guztien elkarteak) ahalegin bereziak egiten ditu gure arteko komunikazioetan euskara erabiltzeko.

Bestalde, Lagunarte kofradixan euskararen egoera oso ona dela esan dezakegu. Batzarrak, erabat euskaraz burutzen dira, baita ere deialdiak, jaietako kartelak... Euskararen presentzia ezinbestekoa ikusten dugu. Juramentuak eta berba txarrak erdarazkoak dira beti, ordea.

Zein ekintza egiten ditu Lagunarte elkarteak euskaraz?

Erregeeneko jaiak eta txahal-janak izaten dira herriko jendearentzat antolatzen ditugun ekintza nagusienak eta, noski, euskaraz ospatzen dira jai horiek. Herri-kirol arloko ikuskizunak, trikitilariak, mezak, erromeriak, umeen jolasak, beti antolatu ditugu euskaraz, horrela baitira.

Lagunartek, Iturrizoro elkartearekin batera, parte hartzen du, besteak beste, honako hauek antolatzen: Elkartearen arteko Mus Txapelketa, Aste Mikologikoa, Elorrioko jaietako Danborrada, Sukalki Eguna eta Pintura lehiaketa. Ekintza hauetan guztietan euskara bermatuta dagoela uste dugu.

Zein laguntza beharko zenukete euskara gehiago erabiltzeko?

Itzultzaile baten beharra izaten dugu kasu puntualetan. Internet erreminta oso egokia izaten da kasu hauetan baina, oraindik ere, "konektatu" gabe gaudela esango nuke.

Bestalde, euskaraz berbetan hasi eta erdarara jotzen dugu askotan, beste edozein elkarteri pasatzen zaion modura eta herri mailako arazo berdinak direnean, soluzioak ere antzekoak izango dira. Horiek, soluzioak alegia, adituek esan beharko dute eta zeintzuk diren eta zelan konpondu; gure lana horiek martxan eta praktikan jartzea izango da.



El uso del euskera en nuestra cofradía es muy alto: el 95% de los socios y socias saben euskera. La asociación Iturrizoro (asociación de todas las sociedades de Elorrio) realiza un especial esfuerzo para garantizar el uso del euskera en las comunicaciones, colaboraciones, ...

Utilizamos el euskera en todas las actividades que Lagunarte organiza junto con la asociación Iturrizoro: Campeonato de mus inter sociedades, Semana Micológica, Tamborrada de las fiestas de Elorrio,...

En casos puntuales solemos necesitar la ayuda de un traductor o traductora. Internet es una herramienta muy adecuada pero se podría decir que aún no estamos "conectados".

Muchas veces empezamos a hablar en euskera y sin darnos cuenta nos pasamos al castellano.

ZERBITZU-ENPRESA BERRIA GEURIEN HITZARMENEAN

Doitu Topografia

Zergatik egiten duzue bat Geurien Hitzarmenarekin?

Euskararen ohiko erabileraren aldeko ekimen bat izanik, euskara egunerokotasunean eta normaltasunez erabiltzeko interesgarria iruditzen zaigulako.

Zein da euskararen erabilera zuen eguneroko lanean?

Gure arteko harremana euskaraz izaten da eta baita bezero eta hornitzaileekin ere, horiek euskaldunak badira behintzat. Horretaz gain, eguneroko idazki, ohar, artxibo eta abar euskaraz idazteko joera daukagu. Bestalde, aurrekontu eta planoak euskaraz, gaztelaniaz edo ele bitan egiten ditugu baina hori bezeroaren arabera izaten da.

Zeintzuk dira euskaraz lan egiteko dituzuen zailtasunak?

Orokorrean, guk eta gure lan-esparruan dabilzan ingeniari eta teknikariek ez dugu gure ikasketak euskaraz egiteko aukerarik izan, eta hitz teknikoak erabiltzeko orduan, erraztasun falta nabaritzen da.

Topografiaren esparruan, zein da euskararen lekua?

Euskarak topografian daukan lekua, beste lan-esparru batzuetan bezala, norberaren arabera da. Euskara apurka-apurka hizkuntza erabilgarri eta praktikoa izatera heltzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Gaur egun, bere erabilerak batzuetan esfortzua eskatzen duen arren, era natural batez erabiltzea beharrezkoa dela uste dugu.



Nos parece que siendo un proyecto en favor del euskera, Geurien, puede ser interesante para utilizar el euskera en el día a día con normalidad.

Realizamos los escritos, archivos... diarios en euskera. Dependiendo de la clientela también los hacemos en castellano o bilingüe.

No hemos tenido la oportunidad de realizar nuestros estudios en euskera y tenemos dificultades a la hora de utilizar palabras técnicas.

Creemos que es necesario que el euskera se utilice de una manera natural, incluso sabiendo que algunas veces su uso puede suponer un esfuerzo.

Xara taberna

Zer onura ekar diezaioke taberna edo jatetxe bati Geurien hitzarmenarekin bat egiteak?

Euskararen presentzia ordenatzea, nolabait esateko, lehenengo pausoa ematea euskara behar den lekuan jartzeko eta denon artean erabilera gehitzeko.

Bezeroak zein hizkuntzatan zuzentzen dira zuengana?

Hasieran euskaldun gehienak euskaraz zuzentzen zaizkigu eta erdaldun asko gazteleraz, baina barra atzealdetik euskara erabiltzen badugu, gehienek euskaraz eskatzen dute. Azken finean, tabernan erabiltzen den euskara ez da hain zaila eta ohituta ez dagoena ere hasten da euskaraz eskatzen.

Zer egin daiteke taberna eta jatetxeetan euskararen erabilera handitzeko?

Lehenengo euskara erabiltzea: bezeroek ikusten badute euskara erabiltzen dela, euskaraz egingo dute normaltasun osoarekin.

Nolakoa izan da azken urteetan euskararen bilakaera Elorrión? Zeure ustez, orain, lehen baino euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen da?

Geroz eta hiztun euskaldun gehiago dago, baina erabilera oso bestelakoa da. Orokorrean esango nuke umeei euskara erabiltzen dutela, gazteen artean erabilera jaitxi dela, neskek mutilek baino gehiago egiten dutela, jaietan eta jai giroan gehiago erabiltzen dela, bikoteen artean erabilera eskasa, etab... hau inkesta sakona baino zera da, barra atzealdetik inpresio pertsonala.



El proyecto Geurien posibilita dar el primer paso para que el euskera tenga la presencia que es debida y para aumentar su uso entre todos y todas.

Cuando detrás de la barra nos dirigimos a la clientela en euskera, la mayoría pide en euskera. El euskera que se utiliza en los bares no es difícil y aquellas personas que no están acostumbradas a hablar en euskera también nos hablan en este idioma.

Si la clientela ve que en el bar se utiliza el euskera, utilizarán este idioma con normalidad.

Cada vez hay un mayor número de vascoparlantes en Elorrio pero el uso es inferior a lo que debiera. Se podría decir que los niños y las niñas utilizan el euskera, entre la juventud el uso ha descendido, las chicas lo utilizan más que los chicos, en ambientes festivos la presencia del idioma es mayor y entre las parejas el uso es bastante escaso.

HITZARMENAREN SINATZAILE BERRIAK

2009an Geurien hitzarmenean sinatzaile berriak ditugu! 8 establezimendutako langileak hitzarmenean sartzeko erabakia hartu dute, eta hemendik merezitako ongi etorria eman nahi diegu guztiei:

- Txokolat
- Metro2
- Doitu Topografia
- Jakoba taberna
- Gari taberna
- Tilin Talan
- Masaje eta terapia zentroa
- Oreka



Beraz, 100eko muga pasatu dugu. Dagoeneko 108 gara!

Komertzio, zerbitzu-enpresa edo taberna berria zabaltzekotan bazaude, jar zaitez gurekin harremanetan eta gustu handiz azalduko dizugu hitzarmeneko partaide izatea zertan datzan.

Horretarako, honako hau egin dezakezu:

Elhuyar Aholkularitzarekin jarri zaitezke harremanetan:

Tfno: 94 466 88 16

E-maila: ainarai@elhuyar.com/ nereaz@elhuyar.com

Udal Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri:

Tfno: 94 658 27 12

E-maila: euskara@elorrionet.net

En el año 2009 se han adherido al acuerdo Geurien 8 nuevos establecimientos: Txokolat, Metro2, Doitu Topografia, Jakoba taberna, Gari taberna, Tilin Talan, Masaje eta terapia zentroa y Oreka. ¡Ya somos 108!

Desde aquí nuestra bienvenida a todos y a todas. Y animamos a las personas que vayan a abrir un comercio, servicio de empresa o bar-restaurante, a que se pongan en contacto con nosotros/as para explicarles en que consiste la firma del convenio Geurien.

ZELAN IDATZI?



ORDUA

Ordua adierazteko

- 13:05 - ordu bata eta bost
- 14:10 - ordu biak eta hamar
- 16:25 - laurak eta hogeita bost

Erdia eta laurdena adierazteko

- 13:15 - ordu bat eta laurdenak ordu bata eta laurden
- 15:30 - hiru eta erdiak

Ze ordu arte? Ordu bata arte; ordu bi eta erdiak arte

Ze ordutatik zer ordutara? Hamarretatik ordu bata arte / ordu batera
Zortzietatik ordu biak arte / ordu bietara

Ordua zenbaki bidez: zenbakiak zifraz eman nahi direnean, orduak, minutuak eta segundoak bina digituz eta bi puntuz bereziko dira. Orduak pluralean deklinatuko dira (15:00etan) eta minutuak singularrean (15:30ean).

- 15:00etan
- 15:03an
- 21:05ean
- 22:00etatik 21:00etara
- Arratsaldeko 5etan
- Goizeko 11:30ean
- Iluntzeko 8etatik 11ak arte
- Arratsaldeko 5etatik gaueko 12ak arte



LEKU-IZENA ETA DATA

Data idazteko modu erabilgarrienak eta gomendagarrienak honakoak dira:

- 2009ko abenduaren 25a
- 2010eko abenduaren 25ean

Eta toki-izena eranstean bazaie horiei:

- Elorrio, 2009ko abenduaren 25a
- Elorrión, 2010eko abenduaren 25ean



TELEFONOAN

Hasierako agurrak

- Euskara-zerbitzua bai, esan
- Euskara-zerbitzua, egun on, (arratsalde on)

Deia beste norbaiti pasatzeko

- Itxaron pixka batean, mesedez, berehala jarriko zaitut Arantzarekin
- Zaude apur batean
- Noren partetik (partez), mesedez?

Norbait ez dagoela esateko

- Une honetan ez dago. Mezuren bat utzi nahi diozu?
- Kanpoan da, mezuren bat-edo utzi nahi diozu?

Elkarrizketa amaitzeko

- Eskerrik asko deitzeagatik
- Hurrengora arte

